

Irudi ezgauzak: Kausa ala sintoma?

Alfredo Jaar-en mindegi / tailerra

“Irudiek erlijio aurreratu bat dute. Lurperatu egiten dute historia”

Vicenç Altaió

Aparteko aurrerapen teknologikoak gorabehera, irudiekiko dugun menpekotasuna erabatekoa da oraindik ere, eta horretan datza haien garrantzia. Bizi garen paisaia hipermediatizatu honetan milaka irudik bonbardatzen gaituzte egunero, zerbait komunikatu eta esan nahian elkarren artean alferrik borrokatuz. Baina, zer eragin izan dezake gure baitan oinazezko irudi batek, kontsumitzera soilik deitzen gaituzten irudi liluratzailen zurrunbiloan galdurik? Zenbat informazio eta gogoeta gune geratzen dira oraindik egungo prentsan, produktuen promozio eta salmentarako sekulako katalogo bihurtu denez gero?

Irudiek gaur egun duten afektu falta aztertuko da. Irudiekiko dugun sentiberatasun falta gizartearen sentiberatasunik ezaren sintoma ote da ala gu bihurtu ote gara sentigogor egungo irudiek afektua eragiteko duten ezintasunaren aurrean?

Hitzaldi eta mahai inguruen bitartez aztertuko da fenomeno hau, proiektu espezifiko bat sortzea proposatuko zaie partehartzaileei erabili asmo den bitartekoan batere mugarik jarri gabe, fotografiatik bideo eta zinemaraino, idazlanetik antzerkiraino, gorputz adierazpidetik muskaraino. Gonbidatu bereziek parte hartuko dute partehartzaile guztiekiko elkarrizketa horietan, taldean/publikoki nahiz banaka/pribatuki.

OINARRIAK

INSKRIPZIOA: Interesa duten pertsona guztiek eska dezakete inskribatzeko.

Inskripzioa egiteko honekin batera doan inskripzio orria, curriculum vitae labur bat eta burututako obraren kolorezko argazki edo diapositibak, neurria ere zehaztuz, aurkeztuko dira ARTELEKUn, **irailaren 11 arte**.

ONARPENA: Tailerraren arduradunak berak aukeratuko ditu tailerreko parte hartzaileak, eta bere erabakiaren kontra ez da apelazio biderik izango. Aurkeztutako argazki edo diapositibek garrantzizko papera jokatu dute partehartzaileen aukera egiterakoan. Tailerrerako onarpena pertsonalki jakinaraziko da.

ORDAINKETA: Partehartzaileek tailerraren lehen egunean aurkeztu beharko dute Kutxan, 2101/0381/07/000132947/3 k/k.an, matrikula ordaindu izanaren agiria.

MATERIALA: Laneko materialaren kostua Artelekuren kontura doa, tailerraren arduradunak ezarritako mugaren barruan.

TAILERRA

Arduraduna: **Alfredo JAAR.**

Alfredo JAAR (Txileko Santiago, 1956)

New Yorken bizi da eta bertan egiten du lana. Arkitektura eta Zinema ikasketak egin ditu. Bere lana mundu osoan zehar agertu da erakusketetan. Venezia, Sao Paulo, Sidney, Istanbul, Kwangju eta Johannesburgoko urtebikoetan hartu du parte, eta Kasselgo Documentan ere bai.

Azkenaldian ondoko leku horietan egin ditu erakusketak bakarka: New Yorkeko New Museum of Contemporary Art, Chicagoko Museum of Contemporary Art, Londresko Whitechapel Art Gallery, Berlingo Pergamon Museum, Stockolmeko Moderna Museet, Bartzelonako Centre d'Art Santa Mónica eta, laster, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean.

Iraupena: **1998ko irailaren 21etik urriaren 2ra.**

Ordutegia: Tailerra zabalik 9etatik 20etara, astelehenetik ostiralera.

Partehartzaileen gehieneko kopurua: 15.

Matrikula: **6.500 pta.**



Imágenes incapaces: ¿Causa o síntoma?

Seminario / taller de Alfredo Jaar

“Las imágenes tienen una religión avanzada. Entierran la historia.”

Vicenç Altaió

A pesar de todos los extraordinarios avances tecnológicos, nuestra dependencia de las imágenes sigue siendo absoluta, y allí radica su importancia. Vivimos en un paisaje hipermediatizado donde estamos bombardeados diariamente por miles de imágenes que luchan en vano por comunicar y significar. Pero ¿cómo puede afectarnos una imagen de dolor perdida en una vorágine de imágenes seductoras que sólo nos llaman a consumir? ¿Cuántos espacios de información y reflexión quedan aún en la prensa actual, convertida en un verdadero catálogo de promoción y venta de productos?

Se explorará la falta de afecto que tienen las imágenes hoy. ¿Es nuestra falta de sensibilidad a las imágenes un síntoma más de una sociedad insensible o nos hemos vuelto insensibles ante la incapacidad de las imágenes actuales de provocar afecto?

Se analizará este fenómeno por medio de conferencias y mesas redondas, y se propondrá a los participantes la creación de un proyecto específico, sin limitación alguna del medio a utilizar, desde la fotografía al video y al cine, desde la escritura al teatro, desde la expresión corporal a la música. Invitados especiales participarán activamente en un diálogo tanto colectivo / público como individual / privado con todos los participantes.

BASES

INSCRIPCIÓN: Podrán solicitar su inscripción en el seminario/taller todas las personas interesadas.

La solicitud se realizará mediante la presentación de la hoja de inscripción adjunta a estas bases, breve curriculum vitae y fotografías o diapositivas de la obra realizada, indicando tamaño de la misma, en ARTELEKU, **hasta el 11 de septiembre.**

SELECCIÓN: La selección de admisión se llevará a cabo por el responsable del seminario/taller, cuya decisión será inapelable. Las fotografías/diapositivas de obra presentadas, jugarán un papel importante a la hora de la selección. La admisión al curso se comunicará personalmente.

PAGO: Los participantes deberán presentar el primer día del taller, el justificante de ingreso en la Kutxa, cta. cte. nº 2101/0381/07/000132947/3.

MATERIAL: El coste del material corre a cargo de Arteleku, dentro de un límite establecido por el responsable.

TALLER

Responsable: **Alfredo JAAR.**

Alfredo JAAR (Santiago de Chile, 1956)

Vive y trabaja en Nueva York. Ha estudiado Arquitectura y Cine. Su trabajo ha sido expuesto por todo el mundo. Ha participado en las bienales de Venecia, Sao Paulo, Sidney, Estambul, Kwangju y Johannesburgo, así como en la Documenta de Kassel.

Las exposiciones individuales recientes incluyen el New Museum of Contemporary Art de Nueva York, el Museum of Contemporary Art de Chicago, la Whitechapel Art Gallery de Londres, el Pergamon Museum de Berlín, el Moderna Museet d'Estocolm, el Centre d'Art Santa Mónica en Barcelona y próximamente en el Koldo Mitxelena Kulturunea en San Sebastián.

Fechas: Del 21 de septiembre al 2 de octubre de 1998.

Horario: Taller abierto de 9 a 20 horas, de lunes a viernes.

Número máximo de participantes: 15.

Precio de inscripción: 6.500 ptas.

